BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5239

EBAZPENA, 2011ko urriaren 7an Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, eranskinean aipatzen diren udalei ordezkapenetarako diru-laguntza ematen diena.

Diru-laguntza hauek (HAEE) Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren 7. artikulua eta ondorengoak betez ematen dira, euskara-eskoletara joateagatik egindako ordezkapenak diruz laguntzeko. Agindu honen bidez, batetik, arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua, eta bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko dirulaguntzen arauak

Ikusirik ordezkapenak zuritzeko udalek aurkeztu duten dokumentazioa eta berau Aginduan ezarritakoarekin konparatu ondoren,

EBATZI DUT:

1.– Eranskinean aipatzen diren udalei bakoitzarentzat izendatzen den diru-kopurua ematea, egindako kontratazioen diru-laguntza gisa. Emandako diru-laguntza 2011ko urtarril-ekaina epeari dagokio, gehienez ere.

2.– Ikusita urtarriletik ekainera bitarteko aldian eman beharreko diru-kopurua 2011 urterako izendatutako aurrekontu orokorra baino handiago dela, banaketa proportzionala egin da erakundeen artean, Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoa betez. Banaketa proportzionala egiteko, erakunde bakoitzari dagokion dirulaguntzaren % 49,83ko portzentajea aplikatu zaio.

3.– Horrenbestez, 2011rako aurrekontua agortutzat jotzen da eta, horren ondorioz, 2011ko uztailetik abendura bitarteko aldian ez da dirulaguntzarik emango (aipaturiko Aginduaren 7.4.1 artikulua).

4.– Ebazpen honen aurka ezin da errekurtsorik jarri administrazio-bidean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluak arautzen duen moduan.

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari aurkez dakioke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da jakinarazten den biharamunetik hasita, aipaturiko 29/1998 Legearen 46. artikuluak esan bezala.

Hala ere, aldez aurretik, erakunde honi errekerimendua egin ahal izango zaio, egintza ezeztatu dezan. Errekerimendua IVAPeko zuzendariari zuzendu beharko zaio idazki arrazoitu baten bidez. Errekeritzeko epea bi hilabetekoa izango da Ebazpena jakinarazten den biharamunetik hasita. Errekerimendua jaso eta hurrengo hilabetean erantzunik ematen ez bazaio, ukatutzat joko da (29/1998 Legearen 44. artikulua). Aurretik errekerimendua izan bada, Administrazioarekiko

Auzietako helegitea jartzeko epea, berariazko akordioa jasotzen den edo isilbidez ezeztatuta jotzen den hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 7a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.

Eranskina/*Anexo*

Erakundea *Institución*	**Modulua** *Módulo*	**Ordaindutako hilabeteak** *Meses subvencionados*	**Ikasle kopurua** *Alumnos y alumnas*	**Diru-laguntza moduluka** *Subvención módulos*	**Guztira** *Total*
Abanto-Zierbanako udala *Ayto. de Abanto-Zierbana*	25	3,26	1	3.134,88	3.134,88
Donostiako Udala *Ayuntamiento de San Sebastián*	25 25 25 25 25	4,40 4,16 5,73 4,93 1,83	1 1 1 1 1	4.222,49 3.934,59 5.502,03 4.734,30 1.759,37	4.222,49 3.934,59 5.502,03 4.734,30 1.759,37 20.152,78
Erandioko Udala *Ayuntamiento de Erandio*	25	1	1	959,66	959,66
Hernaniko Udala *Ayuntamiento de Hernani*	25 10	1,47 5,60	1 1	1.407,49 1.330,08	2.737,58
Iruña Okako Udala *Ayto. de Iruña de Oca*	25	5,63	1	5.406,06	5.406,06
Ortuellako udala *Ayto. de Ortuella*	25	1	1	959,66	959,66
Trapagarango udala *Ayto de Träpaga*	25	3,53	1	3.390,79	3.390,79

Vitoria-Gasteizko Udala	25	1	1	959,66	
Ayto. de Vitoria-Gasteiz	25	4,80	1	4.606,35	
	25	5,80	5	27.830,03	
	25	5,07	1	4.862,26	
	25				38.258,29